Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

OT-001-2016

**Gaia:** Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

**Asunto:** Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun zenbakia: 23
Nork aurkeztu du: Bilboko Portuko Agintaritza
Aurkezpen data: 2022/01/04

Sugerencia Nº: 23
Presentada por: Autoridad Portuaria de Bilbao
Fecha de presentación: 04/01//2022

## IRADOKIZUNAREN LABURPENA

1. Gogoeta orokor batzuk egiten dira portuko araudi sektorial aplikagarriari buruz, portu-eremuaren espazio-irismenari buruz eta hura "portu-sistema orokor" gisa sailkatzeari buruz, eta gogorarazten da portuko araudi sektorialean ezarritako portuko antolamenduak eta erabilerek legezko prebalentzia dutela hirigintza-antolamenduarekiko.

2. Ondoren, gogoeta espezifiko batzuk egiten dira LPParen berrikuspen-dokumentuari buruz Bilboko Portuaren lurralde- eta eskumen-eremuari dagokionez.

   - Portu-erakundea bat dator LPPan jasotako aurreikuspenekin, helburu estrategikoekin eta mugikortasunaren eta garraio-azpiegituren ereduarekin.
   - Halaber, aldeko txostena ematen zaio LPParen Antolamendu-arauen 128. artikuluan portuko araudi sektoriala espresuki aipatzeari, eta berriro azpimarratzen da xedapen sektorial horien prebalentzia, udaleko eta udalez gaindiko administrazioen planteamenduak eta jarduketak baldintzatzen baitituzte portuko espazioen ustiapen egokia oztopatu edo mugatu lezaketen kasuetan.

## RESUMEN DE LA SUGERENCIA

1. Se realizan una serie de consideraciones de carácter general en relación con la normativa sectorial portuaria de aplicación, el alcance espacial del ámbito portuario y su calificación como "sistema general portuario", y se recuerda la prevalencia legal de la ordenación y usos portuarios establecidos en la normativa sectorial portuaria respecto de la ordenación urbanística.

2. Posteriormente se realizan una serie de consideraciones específicas al documento de Revisión del PTP en relación con el ámbito territorial y competencial del Puerto de Bilbao.
   - El Organismo portuario comparte las previsiones, objetivos estratégicos y modelo de movilidad e infraestructuras del transporte recogidos en el PTP.
   - Asimismo, informa favorablemente la referencia expresa de la normativa sectorial portuaria en el artículo 128 de las Normas de Ordenación del PTP, reiterando la prevalencia de dichas disposiciones sectoriales y condicionando los planteamientos y actuaciones de las diferentes administraciones municipales y supramunicipales en aquellos supuestos que pudieran interferir o limitar una adecuada explotación de los espacios portuarios.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87H2-XZ6C-QP24-FAJP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Hori dela eta, eskatzen du azpiegitura berdearen berezko baldintzapenak mugatzea, espazioan egokiro zedarrituz zerbitzu ekosistemikoen eremu naturalen sarea eta interes naturaleko eta itsasertzeko paisaia babesteko eremuak, Bilboko Portuan eta Serantesko, Punta Galeako eta La Arenako parke metropolitarretan, bai eta Eremu funtzionaleko paisaia katalogatuz, portu-zerbitzuaren eremukoak edo harekiko mugakideak diren eta etorkizuneko garapena oztopa lezaketen eremuetan.

  Bestalde, adierazten du udaleko eta udalez gaindiko antolamendu- eta kudeaketa-eremuen mugapena egokiro harmonizatu behar dela ustiapen ekonomikoaren eta portu-ustiapenaren berezko eremuekin, antolamendu-kategoriak behar bezala mugatuz.

- Azkenik, portu-erakundeak ere uste du Nerbioi itsasadarraren ingurunea aukerak garatzeko espazio publiko nagusia dela, baina gogorarazten du non dauden kokatuta portu-zerbitzuak eta industria-instalazioak. Izan ere, portuko zerbitzugunea osatzen duten eremu horiek ustiatzeko, beharrezkoa da irisgarritasun egokia izatea.

- En ese sentido, solicita limitar condicionamientos propios de la infraestructura verde mediante la adecuada delimitación espacial de la red de zonas naturales de servicios ecosistémicos y de los espacios de interés natural y de protección del paisaje litoral del Puerto de Bilbao, de los Parques Metropolitanos de Serantes, Punta Galea y La Arena, así como de la catalogación del paisaje el Área Funcional, en aquellos espacios pertenecientes o limítrofes a la zona de servicio portuaria que pudieran interferir su desarrollo futuro.

  Asimismo, señala que la delimitación de los espacios de ordenación y gestión municipal y supramunicipal se armonicen adecuadamente con los propios de la explotación económica y portuaria mediante la adecuada delimitación de las categorías de ordenación.

- Por último, comparte la visión del entorno de la Ría del Nervión como nuevo espacio público central de oportunidad, aunque recuerda la realidad portuaria en el que se emplazan los servicios portuarios y las diversas instalaciones industriales, espacios que conforman la zona de servicio portuaria para cuya explotación se requiere de una accesibilidad adecuada.

## IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. Aipatutako portu-araudi sektoriala, bai eta haren mugapen- eta antolamendu-tresnak ere, LPParen Antolamendu-arauen 128. artikuluan jasota daude. Hala, dokumentuan islatzen da portuko legeriak antolamendu-mekanismo espezifikoak sartu dituela.

2. Gogoeta espezifikoei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Bide-azpiegiturak Iradokizunean aipatutako LPParen helburu estrategikoei eta mugikortasun-eredu orokorrari eutsiko zaie, baina Bizkaiko Errepideen Arloko Lurralde Plan berrian ezarritako eredu disruptiboaren aurreikuspenak jasoko dira. Bilboko Portuari eta, zehazki, mendebaldeko sarbideari dagokionez, horrek esan nahi du administrazio

## CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. La normativa sectorial portuaria señalada, así como sus instrumentos de delimitación y ordenación quedan recogidos en el artículo 128 de las Normas de Ordenación del PTP, reflejándose de esta manera en el documento que la legislación portuaria introduce mecanismos específicos de ordenación.

2. Respecto a las consideraciones específicas realizadas cabe reseñar:

- Infraestructuras viarias. Manteniendo los objetivos estratégicos y modelo de movilidad general del PTP aludidos en la sugerencia, éste recogerá las previsiones del modelo disruptivo establecido en el nuevo Plan Territorial de Carreteras de Bizkaia. En lo que se refiere al Puerto de Bilbao y, en concreto, a su Acceso Oeste, ello supone la limitación de la previsión de



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87H2-XZ6C-QP24-FAJP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

sektorialaren aurreikuspena A-8arekiko lotunearen konponbidera mugatuko dela. Lotunearen bide-zatia, bestalde, LPPan jasoko da, lurralde-ereduaren iradokizun gisa, eta Bilboko Portuak berak garatu beharko du. Bide zati horren konponbideak ezin du bakartuta utzi Zierbenako Valle auzoa udalerriko gainerako auzoetatik, eta ezin du eten Serantesko eta La Arenako parke metropolitarren arteko jarraitutasuna.

- Portuko araudi sektorialaren prebalentzia. LPParen Aradiaren 128. artikuluan jasotako prebalentzia ez litzateke zalantzan jarriko aurreko puntuan adierazitako baldintzapenengatik; aitzitik, baldintzapen horiek, inplikatutako alderdien arteko bizikidetza orekatuaren testuinguruan, bere garaian garatu beharreko bide-jarduketako proiekturako abiapuntuko datu gisa ulertu behar dira.

- Mugatutako portu-zerbitzuguneetan azpiegitura berdeak izan ditzakeen interferentziei dagokienez, planoetan erreferentzia bat gehituko da portuko antolamenduak eta erabilerek hirigintza-antolamenduarekiko duten prebalentziari buruz.

  Hala ere, ez da egokia baldintzapenak portuko zerbitzugunetik kanpoko eremuetan mugatzea. Izan ere, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bateginaren 56. artikuluaren arabera, erreferentziazko plan bereziaren zehaztapenak ezin dira hedatu mugatutako zerbitzugunetik kanpo.

- Nerbioi itsasadarraren ingurunea aukerak garatzeko espazio publiko nagusi gisa hartzeari dagokionez, adierazten da LPP portuko errealitateaz jabetzen dela eta kontuan hartzen duela.

la administración sectorial a la resolución del enlace con la A-8; el tramo viario de conexión, por su parte, será contemplado en el PTP como sugerencia del modelo territorial, a desarrollar en su caso por el propio Puerto de Bilbao. La resolución de dicho tramo no deberá aislar el barrio de Valle (Zierbena) del resto de los del municipio, ni comprometer la continuidad entre los parques metropolitanos del Serantes y La Arena.

- Prevalencia de la normativa sectorial portuaria. La prevalencia recogida en el artículo 128 de la Normativa del PTP no quedaría cuestionada por los condicionamientos señalados en el punto anterior, sino que éstos deben entenderse, en el contexto de una equilibrada convivencia entre las distintas partes implicadas, como unos datos de partida para el proyecto de actuación viaria a desarrollar en su día.

- En relación con las posibles interferencias de la infraestructura verde en las zonas de servicio portuarias delimitadas, se añadirá en los planos una referencia sobre la prevalencia de la ordenación y usos portuarios respecto de la ordenación urbanística.

  Sin embargo, no procede limitar los condicionantes en los espacios exteriores a la zona de servicio portuario, puesto que de conformidad con el artículo 56 del Texto Refundido de la Ley de Puertos del Estado y de la Marina Mercante, las determinaciones del plan especial al que hace referencia no pueden extenderse más allá de la zona de servicio así delimitada.

- En relación con el entorno de la Ría del Nervión como nuevo espacio público central de oportunidad, se señala que el PTP es consciente de la realidad portuaria, y la toma en consideración.

**LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA**
**LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL**

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87H2-XZ6C-QP24-FAJP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus